



Gaia: prozedura bertan behera uzteko akordioa.

Espedientea: euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntzeko diru-laguntzen deialdia (2015eko azaroaren 10eko agindua, 2015/11/16ko 28. zk.ko EHAA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko azaroaren 10eko agindua (2015/11/16ko 218. EHAA), euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntza emateko diru-laguntzak deitzen dituen, dela-eta Sail honetan tramitatzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar zaio; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiari buruz irizpidea zehazteko, mota horretako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Horregatik, hau jakinarazten dugu: 2016/03/23an eskatu zaio ANEPri (Ebaluazio eta Prospekzioko Agentzia Nazionala) aipatutako txostena, eman eta bidal dezan, administrazio-espeditentari gehitzeko asmoz.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 42.5.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru hilabetetik gorakoa ezin izango den epe batean, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte, bertan behera utzi ahal izango da prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko denbora.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT

Bertan behera uztea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko azaroaren 10eko aginduaren (2015/11/16ko 218.EHAA), euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntzeko diru-laguntzak deitzen dituenaren, espedientea dela-eta Sail hau aurrera eramaten ari den administrazio-prozeduraren tramitazioa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzea dela-eta, emango zaio interesatuari unean-uneke informazioa.



Halaber, hau jakinarazten dugu: tramitazioa bertan behera uzteko epea ezin izango da inoiz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 42.5.c). artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 58. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 23a




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDEA